



25

EUSKADIKO
ORKESTRA

26

RACHMANINOFF



BARTOK



14 ABRIL | 19:30
ABRIL

Pamplona / Iruña BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

EUSKĀDIKO ORKESTRA

KONTZERTINOĀ CONCERTINO Igor Yuzefovich

I BIOLINAK / VIOLINES I

Xabier de Felipe (1)
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
David Carmona
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Maite Menéndez
Gemma Monton
Larraitz Oartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Maddi Arana
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Maite Abasolo (4)
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Monika Mazur
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Karmele Castillo
Natalia Díaz
Misael Lacasta (5)
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Andrés Carmona (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Carlos González (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Álvaro Parrón (5)
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

TRONPETAK / TROMPETAS

Yael Fiuza (2) (5)
Alberto Romero (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi (3)
Alba Rodríguez (5)

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)
María del Mar Anglés (2) (5)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen tuttia / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

RACHMANINOFF BARTOK

EGITARAU A ^ PROGRAMA

I

Anatoli LIADOV (1855-1914)

Laku sorgindua, Op.62 [6']

Sergei RACHMANINOFF (1873-1943)

Piano eta orkestrarako 3. Kontzertua re minorrean, Op.30 [39']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Allegro ma non tanto
- II. Intermezzo
- III. Finale

II

Bela BARTOK (1881-1945)


Orkestrarako kontzertua [36']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Introduzione: Andante non troppo - Allegro vivace
- II. Giuoco delle coppie: Allegretto scherzando
- III. Elegia: Andante non troppo
- IV. Intermezzo interrotto: Allegretto
- V. Finale: Pesante - Presto



Juraj **VALCUHA**
Zuzendaria • Director



Nikolai **LUGANSKY**
Pianoa • Piano

Nikolai Luganskyk eta Sergei Rakhmaninovek nazioartean txalotutako binomioa osatzen dute. Errusiar pianistak bere herrikidearen obra bati egiten dion interpretazio berri bakoitza mugarri bihurtzen da, eta Euskadiko Orkestrarekin lehenago ere bizi izan dugu: 2021ean hemen izan genuen, *Paganiniaren lan bati buruzko Rapsodia* eskaintzeko. Bisita berri honetan, Luganskyk, 1994an Txaikovski Lehiaketa irabazi zuenak eta azken hamarkadetako artista errusiar sarituenetakoak, bere partiturarik zailena izango du aurrez aurre, *Pianorako 3. Kontzertua*, Rakhmaninovek berak, instrumentuaren historiako pianistarik onenetako batek, idatzi zuena, interprete gisa duen birtuosismoa erakusteko helburuarekin. Pianismoaren mugarri horren aurretik, Rakhmaninoven aurreko belaunaldiko maisu Anatoli Liadoven *Laku sorgindua* poema sinfonikoaren inpresionismo liluragarria izango dugu; eta, bigarren zatian, **Juraj Valcuhak** Houstongo Sinfonikoaren eta Tokioko Yomiuri Symphony Orkestraren zuzendari titullarrak, beste obra kontzertatzaile baten interpretazioa aurkeztuko du: Bela Bartoken *Orkestrarako Kontzertua*. Bertan, bakarlariak, oraingoan, orkestrako kideak izango dira.

Laku sorgindua (1909) poema sinfoniko laburra da, **Anatoli Liadovek** «maitagarrien ipuin-eszena» azpitulatu zuena eta Nikolai Tcherepninen zuzendaritzapean San Petersburgon estreinatu zena. Istorio bat kontatu baino gehiago, lanak gaueko paisaia misteriotsu bat margotzen du: uraren dardara arina iradokitzen duten soka banatuen atzealde baten gainean, harpak argi-distirak marrazten ditu, gero orkestrako gainerakoei bide ematen diotenak zazpi minutu eskasetan, Liadovek baretasun magikoko giro ia inpresionista sortzen du, non tentsio dramatikorik ia ez dagoen, eta xarma guztia metamorfosi harmonikoetan eta orkestrazio oso finean datzan.

Aurrekoaren erabat garaikidea, **Sergei Rakhmaninovek *Pianorako 3. Kontzertua*** 1909ko udan konposatu zuen, konpositoreak Ivanovkan zuen familiaren etxaldean, Estatu Batuetan lehen bira egiteko prestatzen ari zen bitartean. Urte hartako irailaren 23an amaitu zuen, eta itsasontzira eraman zuen teklatu mutu batean zeharkaldi atlantikoan ikasi ondoren, berak estreinatu zuen bakarlari gisa 1909ko azaroaren 28an New Yorken, Walter Damrosch-ek zuzendutako New York Symphony Societyrekin. Handik aste gutxira, Gustav Mahlerren gidaritzapean, New Yorken joko zuen berriro, musikako bi erraldoiren arteko elkarlan historiko batean.

Nahiz eta bere konposizioa denboran Schoenberg edo Stravinskiren abangoardiaren gorakadarekin bat etorri, *Hirugarren Kontzertua* erromantizismo berantiarreko hizkuntzan sendo finkatuta mantentzen da, melodia zabal, harmonia aberats eta adierazkortasun sentimental eta zuzenarekin. Erromantizismoko tradizioari leial eusten dio hiru mugimendutan, hirugarrena bigarrenetik etenik gabe lotuz, eta orkestrak ere osaera estandarra du: egurrak binaka, lau tronpa, bi tronpeta, hiru tronboi, tuba, tinbalak, perkusio txikia eta hariak. Hala ere, eta Rakhmaninovekin ia beti gertatzen den bezala, azpiko konposizio-teknika benetan interesgarria eta konplexua da. Lehenengo mugimendua pianoan harrigarriro sinplea eta ia diatonikoa den gai batekin hasten da, Rakhmaninovek «bakarrik

idatzi zela» zioena, orkestraren marmarraren gainean. Itxuraz apala den melodia hori idazkera pianistiko oso landua bihurtzen da laster, arku melodiko handiekin, bata bestearen atzetik datozen figurazioekin eta indar handiko klimax batzuetara daraman sonata formako garapen trinkoarekin. Pirotekniatik haratago, kontzertua entzuten duenarentzat gakoa itxuraz sinplea den eta ia obra osoa zeharkatzen duen lehen gai horren hari melodikoari jarraitzea da: bigarren mugimenduaren amaieran berragertzen da, eraldatuta, eta hirugarrenaren energia erritmiko gupidagabeaz azaleratzen da berriro, tokata-figurazioen, sinkopen eta staccaton jotako mailu hotsen artean, tonalitateari re minorretik re maior itsugarri batera bira emate dion azken koda batean modu apoteosikoan amaitzeko.

Lanak laster lortu zuen pianorako errepertorioko kontzertu zailenetako bat izatearen ospea, bai idazketa tekniko nekagarriagatik, bai musika eta adierazpen dentsitateagatik. Josef Hofmann pianista handia, Rakhmaninovek obra eskaini ziona, ez zen inoiz jendaurrean jotzera ausartu, «ez zela berarentzat» esaten zuen, eta hamarkada askotan musikagileak ia berak bakarrik defendatu zuen partitura. Vladimir Horowitz bezalako teknika bikaineko pianojoleak iritsi behar izan ziren kontzertua azkenean errepertorio handira gehitzeko, pianoan virtuosismoaren erreferentziatzko lanaren ospea sendotuz.

Erreferentziala da, halaber, **Bela Bartoken *Orkestrarako Kontzertua***, Juraj Valcuhak bigarren zatian joko duena. 1943an Estatu Batuetan konposatua, Bartok ekonomia eta osasun arazoak pasatzen ari zela, hungariar herrikide batzuek isilpean egin zioten enkargua, murgilduta zegoen depresiotik ateratze aldera. Emaitza, Serge Koussevitzkiren ustez, «azken mende laurdenean idatzi den lanik onena» izan zen.

Bartoki New Yorkeko ospitale batean zegoen bitartean eman zioten *Orkestrarako Kontzertuaren* enkargua, bi urte geroago bere bizitzarekin amaituko zuen leuzemia diagnostikatu baino lehentxeago. 1940an faxismotik ihesi iritsi zenetik Estatu Batuetan bere lekua aurkitu ez zuen konpositoreak bere ilusio eta umore guztia kontzertu eta sinfonia hibrido original honetan, bere azkenurreko obran, jarri zuen. Bartokek iruzkin hau egin zuen bere estreinaldirako, 1944ko abenduaren 1ean Bostongo Symphony Hallen:

«Obraren gogo-aldarte orokorrak, bigarren mugimendu bromazalea alde batera utzita, lehen mugimenduaren zorrotasunetik eta hirugarrenaren hileta-kanta goibeletik azkenaren bizi-baieztapenerako pixkanakako trantsizioa irudikatzen du. Sinfonia baten antzeko orkestra-lan honen izenburua instrumentu indibidualak modu kontzertatzaile edo bakarlari batean tratatzeko duen joerak azaltzen du. Tratamendu "virtuosoa", adibidez, lehen mugimenduaren garapenaren *fugato* sekzioetan agertzen da (haize metalezko instrumentuak), gai nagusiaren *perpetuum mobile* bezalako pasartean azken mugimenduan (hariak), eta, batez ere, bigarren mugimenduan, non instrumentu bikoteak elkarren segidan aurkezten diren esku-hartze bikainekin».

El de **Nikolai Lugansky** y Sergei Rachmaninoff es un binomio internacionalmente aclamado. Cada nueva interpretación del pianista ruso de una obra de su compatriota es un acontecimiento, y con Euskadiko Orkestra ya lo hemos vivido anteriormente: en 2021 lo tuvimos aquí para interpretar la *Rapsodia sobre un tema de Paganini*. En esta nueva visita, Lugansky, ganador en 1994 del Concurso Tchaikovsky y uno de los artistas rusos más laureados de las últimas décadas, enfrentará su partitura más difícil, el *Concierto para piano nº3*, que el propio Rachmaninoff, uno de los mejores pianistas de la historia del instrumento, escribió con el objetivo de exhibir su virtuosismo como intérprete. Este hito del pianismo estará precedido del hechizante impresionismo del poema sinfónico *El lago encantado* de Anatoli Liadov, maestro de la generación anterior a la de Rachmaninoff; y, en la segunda parte, **Juraj Valcuha**, director titular de la Sinfónica de Houston y de la Yomiuri Symphony Orchestra de Tokio, presentará su rendición de otra obra concertante: el *Concierto para orquesta* de Bela Bartok, en el que los solistas son, esta vez, los propios componentes de la orquesta.

El lago encantado (1909), es un breve poema sinfónico que **Anatoli Liadov** subtituló «escena de cuento de hadas» y que fue estrenado en San Petersburgo bajo la dirección de Nikolai Tcherepnin. Más que narrar una historia, la obra pinta un misterioso paisaje nocturno: sobre un fondo de cuerdas divididas que sugieren el leve temblor del agua, el arpa dibuja destellos de luz que dan paso luego al resto de la orquesta. En apenas siete minutos, Liadov crea un clima de serenidad mágica casi impresionista, en el que apenas hay tensión dramática y todo el encanto reside en las metamorfosis armónicas y la refinadísima orquestación.

Estrictamente contemporánea de la anterior, el ***Concierto para piano nº3*** de **Sergei Rachmaninoff** fue compuesto durante el verano de 1909, en la hacienda familiar del compositor en Ivanovka, mientras se preparaba para su primera gira por Estados Unidos. Lo terminó el 23 de septiembre de ese año, y tras estudiarlo durante la travesía atlántica en un teclado mudo que se llevó al barco, lo estrenó él mismo como solista el 28 de noviembre de 1909 en Nueva York, con la New York Symphony Society dirigida por Walter Damrosch. Pocas semanas después volvería a tocarlo en Nueva York bajo la batuta de Gustav Mahler, en una colaboración histórica entre dos gigantes de la música.

Aunque su composición coincide en el tiempo con el ascenso de las vanguardias que representaban Schoenberg o Stravinsky, el *Tercer concierto* se mantiene firmemente anclado en el lenguaje tardorromántico, con amplias melodías, armonías ricas y una expresividad sentimental y directa. Se mantiene fiel a la tradición romántica en tres movimientos, con el tercero enlazando sin pausa desde el segundo, y la orquesta es también de plantilla estándar: maderas a dos, cuatro trompas, dos trompetas, tres trombones, tuba, timbales, pequeña percusión y cuerdas. Sin embargo, y como ocurre casi siempre con Rachmaninoff, la técnica compositiva subyacente es realmente interesante y compleja. El primer movimiento se abre con un tema sorprendentemente sencillo y casi diatónico en el piano, que Rachmaninoff decía que «se escribió solo», superpuesto al murmullo de la orquesta. Esa melodía aparentemente humilde se transforma pronto en una escritura pianística muy elaborada, con grandes arcos melódicos, figuraciones en cascada y un denso desarrollo en forma sonata que conduce a varios climas de enorme fuerza. Más allá

de la pirotecnia, la clave para quien escucha el concierto está en seguir el hilo melódico de ese primer tema aparentemente sencillo, que atraviesa casi toda la obra: reaparece, transformado, al final del segundo movimiento, y emerge de nuevo en la implacable energía rítmica del tercero, entre figuraciones de tocata, síncopas y martilleos en staccato, para concluir de forma apoteósica en una coda final que vira la tonalidad de re menor a un re mayor deslumbrante.

La obra pronto se ganó la reputación de ser uno de los conciertos para piano más difíciles del repertorio, tanto por su agotadora escritura técnica como por su densidad musical y expresiva. El gran pianista Josef Hofmann, a quien Rachmaninoff dedicó la obra, nunca se atrevió a tocarla en público, afirmando que «no era para él», y durante décadas la partitura fue defendida casi exclusivamente por el propio compositor. Tuvieron que llegar pianistas de técnica excepcional como Vladimir Horowitz para que el concierto se sumara por fin al gran repertorio, consolidando su fama de obra de referencia del virtuosismo en el piano.

Referencial es también el **Concierto para orquesta** de **Bela Bartok**, que Juraj Valcuha abordará en la segunda parte. Compuesto en los Estados Unidos en 1943, con Bartok atravesando problemas económicos y de salud, fue un encargo que urdieron en secreto varios compatriotas húngaros para sacarle de la depresión en que se hallaba sumido. El resultado fue, según Serge Koussevitzky, «la mejor obra que se haya escrito en el último cuarto de siglo».

A Bartok le encargaron el *Concierto para orquesta* mientras se encontraba ingresado en un hospital de Nueva York, poco antes de que le diagnosticaran la leucemia que acabaría con su vida dos años más tarde. El compositor, que no había encontrado su lugar en los Estados Unidos desde que llegase huyendo del fascismo en 1940, volcó toda su ilusión y humor en este original híbrido de concierto y sinfonía, su penúltima obra. Bartok proporcionó este comentario para su estreno, el 1 de diciembre de 1944 en el Symphony Hall de Boston:

«El estado de ánimo general de la obra representa, dejando aparte el bromista segundo movimiento, una transición gradual de la severidad del primer movimiento y la lúgubre canción funeraria del tercero a la afirmación vital del último. El título de esta obra orquestal parecida a una sinfonía se explica por su tendencia a tratar los instrumentos individuales de una forma concertante o solista. El tratamiento 'virtuoso' aparece, por ejemplo, en las secciones en *fugato* del desarrollo del primer movimiento (instrumentos de viento metal), en el pasaje como un *perpetuum mobile* del tema principal en el último movimiento (cuerdas), y sobre todo, en el segundo movimiento, en el que parejas de instrumentos se presentan consecutivamente con brillantes intervenciones».

MIKEL CHAMIZO

Hurrengo kontzertu sinfonikoa / Próximo concierto sinfónico

5
maiatza
mayo
19:30

STRAUSS
MENDELSSOHN

SARRERAK / ENTRADAS

10€ < 40€


euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla



25


EUSKADIKO
ORKESTRA

26



ARRIAGA BARTOK BERLIOZ BERNAOLA MENDELSSOHN
MOMPOU MUSSORGSKY PROKOFIEV RACHMANINOFF RAVEL
RESPIGHI SAY SCHMIDT SCHUMANN STRAUSS TCHAIKOVSKY

Miren Urbieta-Vega · Landarbaso Abesbatza · Katharina Müllner · Camille Thomas · Jaime Martín
Rachel Willis-Sørensen · Ana María Patiño · Bomsori · Riccardo Frizza · Johannes Moser
Nikolai Lugansky · Donostiako Orfeoia · Elena Sancho Pereg · Marifé Nogales
Vocalía Taldea · Michal Nesterowicz



SARRERAK / ENTRADAS

A partir de **10€** -tik gora

Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak / Tarifas especiales: consultar descuentos

PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte / 19:30

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32